



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostiako Sozialistak PSE-EE Talde Politikoa
Grupo Político Socialistas Donostiaras PSE-EE

DONOSTIAKO SOZIALISTAK

**Socialistas
Donostiaras**



Ijentea, 1 - Tel. 943481081 - partido_pse-ee@donostia.eus - www.donostia.eus - 20003 Donostia / San Sebastián

ERAKUNDE ADIERAZPENA, HOLOKAUSTOAREN OROIMENEO EUROPAKO EGUNA ETA HOLOKAUSTOAREN OROIMENEO ETA GIZADIAREN AURKAKO KRIMENEN PREBENTZIOKO NAZIOARTEKO EGUNA DIRELA ETA, ETA HOLOKAUSTOAREN BIKTIMA IZAN ZIREN DONOSTIARRREN OMENEZ

Urtarrilaren 27a aukeratu zuten Europako Parlamentuak eta Nazio Batuen Biltzar Nagusiak, Holokaustoaren Oroimeneko Europako Eguna eta Holokaustoaren Oroimeneko eta Gizadiaren aurkako Krimenen Prebentzioko Nazioarteko Eguna ezartzeko. Egun horretan askatu baitzuten, 1945ean, Auschwitz-Birkenauko (Polonia) deuseztatze esparrua; hantxe erail zituzten kondizio, klase eta nazionalitate guztietako milioi eta erdi lagun.

Alde horretatik, bat egin nahi dugu biktimen oroitzapenarekin, eta Europaren historiako gertaera ilun eta izugarrietatik bat gaitzesteko ekitaldiekin. Gertaera hartan, armada naziak sistematikoki eta aurrez pentsatuta suntsitu zituen 6 milioitik gora judu, bai eta arrazagatik, jatorri etnikoagatik, erlijioagatik, gizarte kategoriagatik, iritzi politikoengatik edo sexu orientazioagatik jazartitako ehunka mila lagun ere. Horien guztien artean zeuden gure hiriko 21 bizilagun.

75 urte igaro dira, eta gure historiako kapitulu tragiko eta izugarri hori oroitu nahi dugu, ez ahaztearren, eta totalitarismoek, inposizioek, bereizkeriak, intolerantziak, arrazakeriak eta xenofobiak dakartzaten arriskuak gogoan izatearren. Horregatik, gogor aldeztu eta bermatu nahi dugu pertsona orok duen eskubidea bere erlijio sinesmenak praktikatzeko, bere ideia politikoak sostengatu eta adierazteko, edozein jatorri etniko edo kulturaletakoa dela ere errespetatua izateko, eta sexu askatasuna gozatzeko.

Egun suspertzen ari diren zenbait mugimenduk, tamalez, mintzagai ditugun urte haietako jokabideetako batzuk gogorarazten dizkigute. Europa balio demokratikoen gainean eraiki behar da, hala nola errespetu eta tolerantziaren gainean, desadostasun eta gatazkak konpontzeko lehentasuneko bidetzat elkarrizketa eta elkar ulertzea hartuta, eta gizarte aniztasuna nahiz gizarteratzea aberastasun iturritzat eta beharrezko ondasuntzat ikusita.



Tokiko ikuspegitik, uste dugu beharrezkoa dela esplizituki gogoratzea, holokausto naziaren biktima guztiei egiten diegun omenaldiaren barruan, 21 donostiarra, tragedia hura nozitu zutenak; eta haien esperientzia gure oroimen kolektiboko parte izatea.

Horregatik guztiagatik, honako erakunde adierazpen hau proposatzen diogu Donostiako Udalbatzari, onar dezan:

1. Donostiako Udalbatzak, urtarrilaren 27a Holokaustoaren Oroimeneko Europako Eguna eta Holokaustoaren Oroimeneko eta Gizadiaren aurkako Krimenen Prebentzioko Nazioarteko Eguna delarik, nazien jazarpena nozitu zuten pertsona guztiak omendu nahi ditu, eta bereziki 21 donostiarra:

- Arrate Itoiz, José Miguel	- Iñurieta Ubillos, Ramón
- Azurza Osategui, José María	- Jorge, Ramiro
- Beguery, Luis	- Martiarena, Manuel
- Casanova Forcada, Vicente	- Otermin, Antonio
- Cubas Gonzales, Sandalio	- Pintos Diaz, Francisco
- Echevarría Serrano, Agustin	- Prior, Marco
- Emparán Ortiz, José	- Redondo García, Juan
- Escartín, Durgorgue, Javier	- Saez Izaguirre, Facundo
- Galicia, Pedro	- Vila Gonzalez, Eduardo
- García Manuel	- Anabitarte, Santiago
- Garmendia Gainza, Ignacio	



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostiako Sozialistak PSE-EE Talde Politikoa
Grupo Político Socialistas Donostiaras PSE-EE

DONOSTIAKO SOZIALISTAK

Socialistas
Donostiaras



Ijentea, 1 - Tel. 943481081 - partido_pse-ee@donostia.eus - www.donostia.eus - 20003 Donostia / San Sebastián

2. Donostiako Udalak adierazi nahi du aintzatesten eta oroitzen dituela horiek guztiak, totalitarismo naziaren aurka eta askatasunaren alde egin zuten borroka goraiapatuan, beren duintasunean. Gure eta gizadiaren oroimen historikoaren parte dira.

Donostia, 2017ko urtarrilaren 5a

Izpta.: Ernesto Gasco Gonzalo
PSE-EE Donostiako Sozialistak udal taldearen bozeramailea